



**HAL**  
open science

**Jean-Martin Hiribarren, "Iruñeko bestak" 1845**  
Patri Urkizu

► **To cite this version:**

Patri Urkizu. Jean-Martin Hiribarren, "Iruñeko bestak" 1845. Lapurdum, 2001, VI, pp.319-351.  
artxibo-00471868

**HAL Id: artxibo-00471868**

**<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00471868>**

Submitted on 9 Apr 2010

**HAL** is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

**Patri Urkizu**

(UNED)

**Jean-Martin Hiribarren, *Iruñeko bestak 1845***

Agosti Chaho, Jean Duvoisin, Maurice Harriet, Joanes Oxalde, Emmanuel Inchauspe, Jean-Martin Hiribarren... Hona 1810etik 15erako epean Euskal Herriko Iparraldean jaiotako euskaltzale ospetsuen zenbait izen. Lore-xorta ederra benetan! Euskal hizkuntza eta literaturaren pizkundean zuzi distiratsu eta itzalezinak, Pierre Lafitte<sup>1</sup> ongiaski azpimarratzen digun arabera.

Azkainen sortua genuen Hiribarren, etorki nobleko familia batean, Etcheberria baitan, hain zuzen. Bere amona Juana Dutari, Dominike de Hiribarrenen emaztea, Baztango Dutari Azpilikuetaarren leinu famatutik zetorren. Honetakoak izan ziren, ere, besteak beste, San Frantzisko Xabier eta Martin Azpilikueta ‘*doctor navarrus*’ ospetsuak.

Hona bere aitaren heriotze biharamunean besteren artean idatzi zuen bertso xorta gorabehera zenbait aipatuz :

*Guziek bazakiten zenbat zen zuzena,  
Hauzi guzietan zen lekhuko emana,  
Frantziako aferak nahasi zirenian  
Ihesari eman zen denbora zuenian.  
Aita amak ziozten gathibo egorri,  
Frantziarat norapeit bihotz zilhagarri,  
Berak jo zuen urrun Madrilgo alderat,  
Gorthian gora zituan ahaiden arterat,  
Haren aitaxia aipatu Duthary,  
Espainiako gorthian lehen aitzindari<sup>2</sup>.*

<sup>1</sup> Pierre Lafitte, "Jean-Martin Hiribarren (1810-1866)", *Euskal Herria (I 789-1850)*, Actes du colloque international d'Études Basques (Bordeaux 3-5 mai 1973), Société des Amis du Musée Basque. Bayonne, 1978, 181-191.

<sup>2</sup> Patri Urkizu, "Euskal idazleen bertsoak bigarren Errepublikaren garaian (1848-1851)", *La révolution française dans l'histoire et la littérature basques du XIX<sup>e</sup> siècle*". Sous la direction de Jean-Baptiste Orpustan, Izpegi, Baigorri, 1994, 121-147.

Hamalau urte zituela joan zen apaiz ikasketak Baionako seminarioan burutzeraz eta bertan apeztu zen 1833. ekainaren batean, hogeita hiru urte zituelarik. Denboraldi bat Urruñan eman ondoren Goyetche erretoraren laguntzaile, Bardozeraz iragan zen apez-laguntzaile gisara, eta apez nagusi bilakatu Borda 1839an hil zenean, bertako arimen gidaritza 1865. urterarte hartuz. Nekaturik, Baionako ohorezko kalonje izendatu zuten, baina berehala kota gaitzak jota hurrengo urtean hil zen.

Langile amorratu eta apala, bere eleizkizunek eta gazteendako ardurak uzten zizkieten uneak oro idazten murgildurik igarotzen zituen, eta bizi zelarik argia ikusi zuten poemen artean hauexek dauzkagu : *Iruñeco bestak*<sup>3</sup> (1845); *Montebideoco berriac*<sup>4</sup> (1853); *Eskaldunac*<sup>5</sup>... (1853).

*Montebideoco berriac* maiatzean plazaratu zen. Poemak 223 lauko ditu, hamahiru silaba duelarik bertsolero bakoitzak eta binaka errimak bildurik. Euskal Herriko odoluste izugarri haren aurka jasotako ahotsa izan zen, eta irailean Abbadiak antolatu lore Jokoetan ere gaia beraxe izan zen.

*Eskaldunac*, abenduan argitaratua, oraindik askoz ere luzeagoa da, bost mila bertsolero inguru baitu, Euskal Herrietako historia egiten du bertan hala nola bertan sorturiko hainbat eta hainbat pertsonaia garrantzikoeren bizitza zertzeladak ematen. Hona zioena Andima Ibiñagabeitiak<sup>6</sup> obra honetaz :

*...olerkari baino neurtizlariago ageri zaigu Hiribarren.  
Alare ba ditu bere bertsu aldietan poeta garaienak ere  
onartuko lituken ahapaldiak. Arrigarria benetan apaiz onez  
euskeraz nola menderatu eta erabiltzen zuen ikustea, txoriari  
tzinta bezin errex ta aisa ateratzen zaizkio bertsuak luma-  
muturretik.*

<sup>3</sup> *Ariel* aldizkaria. Baiona, n° 53, 54, 55, 56, 57, 59, 60, 61 ; 1845-X-5, 12, 19, 26-, X1-2, 16, 23, 30. Bukatugabea.

<sup>4</sup> *Montebideoko berriac*. Bayonne, Foré et Lasserre, 1853. Patri Urkizu (ed., 1991), *Lapurdí, Baxanabarre era Zuberoako Bertso eta Kantak*. II, 1545-1900, 543-5 84.

<sup>5</sup> *Eskaldunac, Iberia, Cantabria, Eskal-herriac, Eskal-Herri bakhotchaz eta hari darraiconaz*. Foré eta Lasserre inprimerian. Baionan, 1853. Fac-simil, Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, Zarautz, 1971.

<sup>6</sup> Andima Ibiñagabeitia, "Hiribarren'en "Eskaldunac" (1853-1953)", *Gemika*, n°22, Paris, 1953, 143.

**Harmada**

163

Ederra zen egun hetan,  
Iruñeko zelhaitan,  
Soldadu lerruan emana,  
Francisco Asisek<sup>59</sup> mana.  
Beruak etzuen izitu  
Nahiz nola zen agertu  
Gerla bide itzulitan  
Utziak aski berritan.

164

Jendia zagolarik erria,  
Sapha minian baitzen airia,  
Soldaduak arratsaldian  
Kausten ziren hoberenian;  
Ibili ziren lasterka,  
Aitzindariak oihuka,  
Goiti behiti lerrotan,  
Erregen gustu handitan.

165

Sarthu zirenia hirian  
Etzen bustirik bisaian;  
Hanbat lasterken ondotik,  
Doian ezagun hatsetik  
Asisen zaldizkuek zuten  
Sartzian ederren ematen;  
Bainan bazen oinezkotan  
Zain hartagorik menbrotan.

166

Halako soldaduekin,  
Aitzindari jakinekin,  
Bentzu diteke mundua,  
Nahi bezin hedatua.  
Ez dire beldur gosiaren,  
Ez eta ere bidiaren,  
Guti janik ikhasiak  
Laster higaten mendiak.

167

Suntsuna, xirribikekin,  
Nafatar soldaduekin,  
Gerian dabilke jostetan  
Nola Eliza bestetan.  
Goizeti arrats askotan  
Suan eta mendietan,  
Zigarroa bat musuan  
Bizi ditezke multzuan.

168

Sos baten agorienta  
Hekin edari plazenta;  
Soldadu on ilkhitzeko  
Bada heki beiratzeko.  
Erromanuen denboretan  
Lehoin ziren mendietan;  
Ondoriuak bizi dire  
Gutiago ez baitire.

169

Bertze hanbat jende zoro,  
Guziak direniah haro,  
Zer diren eskaldun umiak  
Errateko zen, aizkidiak:  
Lau mila urthe bederen  
Nausi dire toki beren;  
Ez da munduan bertzerik  
Hek bezala itzaturik.

170

Higatu dire mendetan  
Populuak bazterretan;  
Bere hurretik suntsitu,  
Nausiek asko kasatu,  
Eskalduna Pirenetan  
Ez da izitu gerletan  
Aitak ehortzi tokian  
Izanen bethi agian.

*Aski J. M. H.*

<sup>59</sup> Francisco de Asis Maria Fernando de Borbón (Aranjuez, 1822 - Epinay-sur-Seine, 1902).  
1846ean bere lehengusina Isabel IIarekin ezkonduzen

berritzeko hauteskundeak prestatu zituzten. Askatasunaren zuhaitza plaza erdian jaso zuten eta okasio honekin Hiribarrenek bandera errepublikanoa bedeinkatu zuen, ondoren frantsesez solas eder batez mintzatu zelarik askatasuna (*Libertatea zein eder den!*-errepikatuz euskaraz-), berdintasuna eta anaitasuna goraiapatuz. Lafittek zati bat ematen digularik honako hitzak eransten dizkio, *je me demande si le discours de Hiribarren n'est pas un chef-d'oeuvre de ce genre bâtard*, alegia, jenero bastart honetan maisu lantzat jo daitekeela. Baina, gauza jakina den bezala, zirkunstantziazko literatura hori ugaria da herrialde guztietako literaturetan.

### IRUÑEKO BESTAK 1845

Hiribarren berak dioenez, lapurteraz idatzitako poema txiki bat da "Petit poème sur les fêtes de Pampelune 1845. En dialecte labourdin le plus pur". Baditu, ordea, poematxo honek ehun eta hogeitamar zortziko, beraz, 1362 bertsolerro, aitzakitzat harturik Chahok, Nemours-eko duke eta dukesa, Aumale-ko dukeak eta beste konpainia eder batek (tartean bera) 1845 urteko irailean Iruñeara egin zuten bidaia eta hemen dastatu zituzten bestak.

Dukeen Euskal Herrirako bisitak utzi zizkigum hainbat bertso eta kanta nola Bizente Etxegaraik<sup>14</sup> eskaini ziena Donostiatik igarotzean, edota Tolosatik<sup>15</sup>, edota Hazparneko Larralde Bordaxurik<sup>16</sup> kantatuak. Baina ez ziren iristen Hiribarrenen tamainara, noski, zeinen obraren zati bat Chahok argitaratu zuen, pentsatzen baitzuen edizio elebiduna, euskara-frantsesa, egitea, asmo huts gelditu zena, ordea, Lafittek dioskun legez.

Azkaïndarrak atharrastarraren aipamenarekin hasten digu poema *Ariel*-en, kortesiazko deikia, noski, baina poema berridatzi zuenean, urteak igaro eta, zati hau aldatu egin zuen, beste zenbait orraztu eta zuzenduz. Beraz azken idazkera moldatu dugu gure ediziorako. Bidaiariak, muga pasa ondoren Urdazubi, Arizkun, Elizondo, Moringo Zubia, Belate, Ultzama eta azkenean Iruñeara iritsiko dira erregina Isabel IIarekin eta honen gortearekin elkartzeko.

Hau bere ama Kristina eta ahizpa Luisa Femandarekin Donostiatik zetorren, hemen mainu batzuk hartu eta hiriak harrera benetan ederra eskaini ondoren. Boulevard-eko *Txakur-Txulo* zeritzaion ostatuan egonak ziren eta musika jaialdi bat oparitu zion hiriak Luisa Fernandari, Bizente Etxegaraik,

<sup>14</sup> *Le Phare des Pyrénées*, zb. 729, 1845. VIII.13; zb. 732, 1845. VIII.20.

<sup>15</sup> *Idem*, zb. 740, 1845. IX.7; *Le Courrier de la Gironde*, 1845. IX.8

<sup>16</sup> *Id.*, zb. 744, 1845. IX. 17.

okasio guztietarako prest zegoen donostiar poetak asmatu zortzikoak kantatu zizkiotelarik. Hauetariko bigarrenak honela zioen :

*Infanta gaztetxo  
Espainiakoa,  
Isabelen aizpatxo  
biotz gurekoa :  
erregeren alaba  
zorionekoa,  
ar ezazu oroitze  
Donostiakoa* <sup>17</sup>.

Hemendik Iruñeara joan ziren eta Joakin Ignazio Menkos, Guendulaingo kontearen etxean hartu zuten ostatu. Eta bertan biltzen ziren Frantziako printzeekin, egun batean hirurogeita hamar gonbitatuei platera ugari eta onaskoak eta dantza eder bat eskaini zitzaielarik<sup>18</sup>.

Poemak ez dion arren, printze frantsesek Ezpeletako Kontearen jauregian hartu zuten ostatu, bertan banketeen ondoren serenatak, gau-dantza eta gau-argiak dastatu zituztelarik. Erregina Isabelek Frantziako printzeak erregalatu nahi zituen, eta honetarako momentuan zen toreatzailerik famatuenari eskatu zion torea zezan Iruñean. Gonbitea Ministro de Instrucción y de Hacienda zenak berak egin zion, eta Madridetik pasatzerakoan Montes bere koadrilarekin jai eder bat ere eskaini zitzaion.

Frantziako eta Espainiako korteak Iruñean, iraun zuten bitartean, hau jendez beterik zegoen, ezen topaketa ilustraren aitzakiaz iragarritako ikuskizunek Pirineoetako mainutegietarik ur-hartzaile anitz erakarri baitzuten.

Poemak bederatzi atal ditu : Bidaia (1-12); Argiak (13-21); Zezenetako tokia (22-62); Zezenak (63-125); Zaldi Lasterketak (126-140); Zuziak (141-148), Zuziazko Tiruak (149-155); Pasaiuak (156- 162); eta Harmada (163-170).

Zatirik nagusienak, beraz, zezen plazako giroak eta zezenek hartzen dute (22b.-125b.), bertan kantatzen direlarik garaiko toreadore famatuenaren,

<sup>17</sup> Jose Vicente de Echegaray, *Festara (Bere bertso guzien bilduma)*. A. Zavalaren edizioa. Auspua, 35-36. Donostia, 1964.

<sup>18</sup> *Memorias de Joaquín Ignacio Mencos, Conde de Guendulain*, 1799-1882. Institución Príncipe de Viana, 1952,194.

Francisco Montes<sup>19</sup> azaina bildurgarriak, eta zeinen irudia honelaxe ematen digun euskal poetak :

*Hasia ilia urdintzen  
Baina ez zangua pisatzen,  
Bezi galtza labur ferdez,  
Sedazko gairik senduenez,  
Aztalak xuri zirikuz,  
Oinetan zapatak larruz,  
Hark duen maipolisa,  
Izan behar da belusa.  
Errexago da ikustia  
Ezen ez haren pintatzia.*

Lehen korridan zazpi zezenek jokatu zuten. Montesek lehen estokadaz etzanarazi zuen lehenbiziko arerioa. Bigarrenean, nola ez baitzen oso oldarkor, jendetza *zakurrak! zakurrak!* oihuka hasi zen, Santerak azkenean lau estokadaz hil zuelarik. Hirugarren zezena Chiclanakoak guztiz dotore eta ederki akabatu zuen txaloen artean. Laugarrenean zaldia lurtean sabela hautsirik, lehen estokadaz bota zuen Montesek. Bostgarrenean berriro zaldiak lurtean etzanik tripak kanpoan, eta banderilak ezarri zituenean usoak atera ziren txorimalotik zezenak hau adarkatu zuenean, eta bigarren aldian sartzerakoan hil zuen Montesek. Seigarrenak berriro pikadoreak bota zituen, berriro Santera zezenzalearen kontra madarikazioak entzun zirelarik. Zazpigarrena eta azkena irinez betea atera zen, eta hamabi mutil errotariak, - galtza txuri, alkandora txuri eta zapia buruan loturik -, hamar mila liberaren ordainez saiatu ziren zezena botatzen, halere eskerrak azkenean toreatzailea atera zela, ezen batzuek gaizki zauriturik bukatu baitzuten.

<sup>19</sup> Francisco Montes "Paquiro" (1805-1851), Chiclanan jaioa, igeltzero lanetan peoitzen hasia, baina txikitandik zezenetako grinaz amorratua, pala ezpataz trukatu zuen. Jadanik 1830.ean Sevillan toreatu zuen, eta bertako zezenlarien arte eta ofizioaz jabetu. Madrident 1831.ean presentatu zen Juan Jimenez "El Morenillo" eta Manuel Romerorekin. "Garrocha"z jauzi ederrak egiten zekien, eta kaparekin xit abila izaki Espainiako lehen ezpata izatera iritsi zen. Euskal Herrian maiz ibilia, bertako koadrilak lagun zituela. Komisió batek eskatu zion Louis-Philippe, Frantziako erregearen semeentzat, Aumale eta Nemourseko dukeentzat toreatu zezan. Hasieran ezezkoa eman bazuen ere, erreginaren nahia zela adierazi ziotenean, baiezkoa eman zuen. *El Fandango* egunkariak honela deskribatu zuen "Korrida" : *Don Francisco Montes estuvo admirable en las corridas de Pamplona. Y si es cierto lo que hemos oido decir a personas fidedignas, de que en consecuencia de su arrojo y habilidad se le ha nombrado conde de Chiclana, tiene mucho mejor ganado su título que otras excelencias de escotillón* (José María Cossío, *Los Toros*, T. III, Espasa, Madrid 1980, 632).

Korrida arratsaldeko hiruretan bukatu zen, eta bostetan berriro itzuli ziren printzeak atsedean zertxobait hartu ondoren. Zaldun mordo bat atera zen beren zaldi dotoretan Luis XV eta Felipe IV. garaiko jantziez, eta bukatuta-koan antzekizuna erregina Isabel IIak parte hartzaileen artean dominak hedatu zituen. Besta hau zazpiretan amaitu zen.

Bigarren korrida irailaren zazpian ospatu zen. Erregina ordubiak pasata iritsi zen, idazkariak zilarrezko platera batean eskaini zizkion giltzak alkateari, eta honek erreginari, zeinak halaberetsu eskuinean eserita zegoen Nemourseko dukesari, beronek plazara jaurti zezan. Zeremoni hau eginda-koan korrida hasi zen.

Lehen zezenak zaldien artean triskantza izugarria egin zuen. Montes, dirudienez, ez zegoen forman eta hiltzera sartu zenean jendetza aspertu egin zuen eta txistuak entzun behar izan zituen. Beste zezenak aski oldarkor izan ziren eta txaloak errezibitu zituen. Bostgarrenari hiru gizonak zaintzen zituzten bost zakurtzar bota zizkieten, eta zakurrek zezena kozkatzen zuten bitartean, ezpata sartu zioten. Zakur hauek Jose Joakin Arrese Tolosarrak eramana ziren bi mila eta zortzirehun errealekin truke. Ikuskizun krudel eta odoltsu hau, ordea, ez zen izan ikusle goaren gustokoa.

Ekintza hau Iñaki Azkunek<sup>20</sup> beste era honetan biltzen eta itzultzen digu, *El Heraldo Madrid*-etik harturik :

*Lehen hiru zakurrek ez zuten horzka egiterik lortu. Gero zezenari bota zizkieten beste biak, hain txikiak zirenez gero, ez ziren zaunka egitera ere ausartu. Joaldunak atera eta orduerdia baino gehiago behar izan zuten zezena plazatik eramateko. Errotariak zezen hura eskatu zieten orduan agintariei biharamunean lantzas hiltzeko. 24 errotarik beren haga punta zorrotzak lerrokaturik ipintzen zizkieten zezenari, eta zezenak hirutan hautsi zien lerroa, mutik-gazteak lurrera bota eta zapalduz.*

Printze eta Printzesa frantsesek Montes zezenlariari eta bere pikatzaile Joakin Coyto, alias Charpari diamantezko eraztun bat eta esmeraldez hornitu orratz bat oparitu zieten.

Dena den, ez zuen utzi gure poemagilea ikuskizun krudel honek oso kontent eta honako bertsoa ere idatzi zuen : *ni banintz erregetarik/ez liteke zezenarik*. [124 b.]

<sup>20</sup> Iñaki Azkune, *Zezenak Euskal Herrian, gure baitan dituzten erro luze-ekutuak*. UEU, Bilbo, 1989, 349.



Baleztenak<sup>21</sup> topaketa hauek komentatzerakoan honako iruzkin maltzurra eranstean du :

*Egiaz, Nemours-eko dukesa ederrak zezenari ezarri zizkioten suzko banderilak Frantziako Printzeen bidaia Nafarroarekin eta Probintziekin Foruen arazoa konpontzea eta Isabel IIaren ezkontza Carlos VIa, Montemolingo dukearekin, zeinen alde hainbeste lan egin zuten Balmes filosofo ospetsuak eta La Esperanza gazetak, helburu zuela uste zutenek hartu zituzten.*

Poema euskaldunei eskaini lauko batez amaitzen da :

*Irailaren 8an goizeko zortzietan irten ziren printze frantsesak hiritik, hiru mila liberako oparia eman zietelarik bertako benefizentziazko etxeei.*


*Eskalduna Pirenetan  
Ez da izitu gerletan,  
Aitak ehortzi tokian  
Izanen bethi agian !*

Aski. Amai dezadan aurkezpentxo hau esanez Hiribarren zezen-korridetan oso aditua ez bazen ere bertsozile aparte zela, erritmoaren zentzu berezi eta nabarmenaren jabe, garaikideen artean poeta handitzat kontsideratua, baina halere bertsolariengandik aski hurbil dagoena, batipat hiperbatonak eta elipsiak baztertzen dituenean. Hau dela eta Lafitterentzat gertuago legoke koplariengandik olerkariengandik baino, eta bere burua epikotzat jotzen eta halakoxe nahi bazuen ere, ezin uka daiteke anitzetan moldatzen dituen bertsoak errexegiak ez direnik. Bere benetazko izpiritu zorrotz eta luma landua, ordea, ziri bertsoan, giza kritikazkoetan hala nola deskripzioetan, goi mailako eta arnas handiko ageri zaigularik.<sup>22</sup>

<sup>21</sup> Baleztena, "Iruñerías. Las banderillas de Fuego", *Diario de Navarra*. 1950-III-25, in J. M. Iribarren, *Pamplona y los viajeros de otros siglos*. Pamplona, Príncipe de Viana, 1952, 170.

<sup>22</sup> Anton Abbadiaren koplarien guduak. *Bertso eta aire* zenbaiten bilduma Patxi Urkizuren edizioa. Eusko Ikaskuntza-Euskaltzaindia, Donostia 1997, 89-91, 96-98, 119, 130, 156-157, 181, 182, 192, 193, 197, 203, 204.

# IRUÑEKO BESTAK 1845



Eskuzkribuaren hasiera

## IRUÑEKO BESTAK 1845

Izan haiz, Chaho<sup>1</sup>, Iruñian,  
 Iraila zenian lauian.  
 Bada zer dukan han kaustu<sup>2</sup>  
 Zertako ez duk kondatu?  
 Egotu nauk beira gosia  
 Noiz, egorriz behin asia,  
 Hik, *Ariel*<sup>3</sup> aberatsa  
 Ezkiltzen<sup>4</sup> huen hatsa.  
 Ah! ez dakik bada othe  
 Jendek zenbat hauten maite,  
 Jainkua utziz elizekin,  
 Mintzo bahiz gizonekin?  
 Paristarren koplak utziz  
 Hitan, baduk bethi untziz,  
 Eltze ustelien iraki,  
 Izpiritua ausarki<sup>5</sup>.  
 Paristarrak gatzik ezтик,  
 Emaguk beraz hiretik.  
 Errak : gazen Iruñerat,  
 Hango besten ikusterat.  
 Bigarren<sup>6</sup> egunian horra  
 Non ginen zaldian gora,  
 Urdazuriko patarrrian  
 Mendiz eramanak airian.

1

Irailaren lauian horra  
 Non ginen zaldian gora

Urdazuriko<sup>7</sup> patarrrian  
 Mendiz eramanak airian.  
 Lehen bizkarren puntatik,  
 Lapurdi galtzian bixtatik,  
 Pisu bertzalderat jaustian,  
 Baztan hedatu zen lezian

2

Han Moya<sup>8</sup> eta Arizkun  
 Urak elkharrekin lagun,  
 Ikusten dire herrunan  
 Sorroz<sup>9</sup> ferdutzen errekan;  
 Etxe hazkarrekin naski,  
 Bainan beltzak ere aski;  
 Xutik utzi behar dire  
 Gustu zaharrian baitire.

3

Arthaldiak bi alderditan  
 Alha dire mendietan;  
 Inguru nasaiki sasi,  
 Hetan otsua bethi nausi;  
 Idatze<sup>10</sup>, othe, erreka,  
 Non nahi sortzen metaka;  
 Ere mu hoietan doana  
 Bihotzian maiz da ilhuna.

<sup>1</sup> Agosti Chaho (Atharratze, 1810 - Baiona, 1857), Jean-Martin Hiribarrenen adiskidea.

<sup>2</sup> Kausitu, aurkitu.

<sup>3</sup> *Ariel*, *Courrier de Vasconie*, (Baiona, 1845-1852) eta beste deituraz ere ezagutua, Chahok zuzendu aldizkaria.

<sup>4</sup> Moztu.

<sup>5</sup> Ugari.

<sup>6</sup> Eskuzkribuaren aldaera, Irailaren lauian horra.

<sup>7</sup> Urdazubi, Urdax.

<sup>8</sup> sic. Maia, Amaiur.

<sup>9</sup> Soro.

<sup>10</sup> Iratze, garo.

4

Elizondo zelhai batian  
 Garbi jauntzia ikustian,  
 Bihotza zaizu arintzen,  
 Arraizia gaindik sortzen,  
 Iduri du dioela,  
 Oihian igeri dagola.  
 Hauzuak, beira ungi niri,  
 Non da herri ni iduri?

5

Landan badu artho, harbi ;  
 Lurrak ekhartzen zer nahi ;  
 Lagun maite ostatuko,  
 Errak hik ezetz, Patxiko ?  
 Ez da eskas haragirik,  
 Ez zikhiro gizendurik ;  
 Diru duna sakoletan  
 Ungi heltzen ostatutan.

6

Emaztiak dire jakinak  
 Nola atzeman arrainak,  
 Saltoz bere hoberenian  
 Jauztian hekin etxen aldian :  
 Sarian dituzte baratzen,  
 Amuz direnien trufatzen ;  
 Harri azpitan aingira  
 Gizentzen trenxoinen beira.

7

Aitzinat, haurrak, aitzinat ;  
 Laster Maringo zubirat,  
 Zubi ozar eta, haltua :  
 Ez egin behiti saltua.  
 Bi menditan ukiz zangoz,  
 Nonbait da erdian hondoz ;  
 Berri-berritan egina,  
 Segurian dua beldur dena.

8

Barnia sudun edariaz  
 Ukiz izari handiaz,  
 Loth arimaz Belateri,  
 Higan mihia ageri,  
 Higan, higan, bethi higan,  
 Makhur, zutik, itzulikan,  
 Oihanak handi orotan,  
 Fagoz dire patar hartan.

9

Baldin denboraz Belaten<sup>11</sup>  
 Zenbat herio egin den  
 Nihor kantaz hasten bada,  
 Gorraren egitia on da :  
 Aitzian mendi horren leziak  
 Lehen gorde heriotziak,  
 Bada lazteko beldurrez  
 Eta urtzeko nigarrez.

<sup>11</sup> Befateko Lapurrak kanta famatuaren 11. bertsoak honelaxe dio, hain zuzen :

Ainbertze beldurrekin jendiak Belaten,  
 Uste dut pasajeruak gusto artzen duten.  
 Bertzeren ontasunak ari ziren jaten,  
 Pesalunbria baizik etzuten ematen,  
 Pepe deskantsu ona paratu du aurtan.

(*Cancionero Vasco*, P. Donostia, ed. de J. Riezu et al., Eusko Ikaskuntza, 1994, VII, n° 489, 674)

10

Harria bezain borthitza  
 Izanik ere bihotza,  
 Ez gal denbora solasen,  
 Nola bazine Parisen ;  
 Mendia bezin handiak  
 Hemen obratu gaizkiak ;  
 Ez da nihon izan lurrik  
 Hain odol garbiz bustirik.

11

Mendiz hiru oren huntan,  
 Utz dezagun orai Baztan,  
 Erratzu ezker haranian,  
 Ultzama berriz eskunian ;  
 Zuazte ahalaz airetan  
 Bideko bi herrixketan,  
 Ez baituzu gustuz segur  
 Janen, nahiz duzun agur.

12

Behin han jaten banago ;  
 Hirriak bazuen gogo,  
 Hirugarren zerbitzuan  
 Ethortzian zopa kaikuan ;  
 Garbantzotik zikhiorat,  
 Olotik azetarat,  
 Behar zen gan hastamuka  
 Beldurrez nausia xoka.

**Argiak**<sup>12</sup> Kainoiak.<sup>13</sup> Mukurru. ugari.<sup>14</sup> Nemours-eko eta Aumale-ko Duken gordea.<sup>15</sup> Barazki.<sup>16</sup> Zutabeak.<sup>17</sup> Arte. trebezia.<sup>18</sup> Friso (gazt.), erlaizpe.<sup>19</sup> Cornisa (gazt.), hegaztegi.

13

Iruñan gaituk, muthilak ;  
 Bazter orotan ezkilak ;  
 Pezak<sup>12</sup> pezari oihuka,  
 Jendia non nahi murruka<sup>13</sup>.  
 Hau da munduaren sortzia !  
 Gaitz da elkhar ezagutzia.  
 Jende orainik heldu da,  
 Bihar non sarthu behar da ?

14

Sartzian fransesak<sup>14</sup> hirian,  
 Hiria jarri lorian,  
 Guziek kasik iduri  
 Gutan nahi aitzindari.  
 Lau egun hautan bederen  
 Ez da lanik ikusiren :  
 Jan, edan, nun nahi dantza ;  
 Biba, ez diguk lan gaitza !

15

Anjelusek jo du, horra,  
 Argiz etxetan berdura<sup>15</sup> :  
 Basuak zazpi koloretan  
 Izar dire paretetan ;  
 Balkoinen burdinak suaz  
 lkusgarri dire gauaz ;  
 Aingeru khoruak iduri,  
 Beira athen arkueri.

16

Non nahi ziren kolonak<sup>16</sup>  
 Antze<sup>17</sup> handitan eginak,  
 Bere frisa<sup>18</sup>, kornixekin<sup>19</sup>,

Gain-behera piztuekin ;  
Argiz seinalatuz kantak,  
Ikusten dire paretak  
Mintzo direla arraiki,  
Kortesanuak bezain zinki.

17

Ez bada ere kontutan,  
Komerziua agurretan  
Hainitz ederki da mintzo ;  
Egun ona zuen atzo.  
Korreiuu estaltzian argiz,  
Ez da errenkura astiz ;  
Noizbait galdu da beltzdura  
Eta argitu figura.

18

Zenbat izan den fidela  
Suz da mintzatzen kartzela ;  
Zerbitzua du oraino  
Seguratzten gaixto deino.  
Eliza dorren puntatik,  
Ageri ziren urrundik,  
Argitan distiantenak  
Bafätzen<sup>20</sup> bere urinak<sup>21</sup>.

19

Aitu baduzu mintzatzen,  
Entzun dukezu aiphatzen  
Ezkila baten omena,  
Hirian den handiena :  
Hamabi zapatain barnian  
Koka omen luzke lanian,  
Elkhar uki gabetarik,  
Birungan<sup>22</sup> denak jarririk.

20

Hartaz behiti kanpotik,  
Aingeruen eskuinetik,  
Ageri zen dorre gainian  
Gurutze bat ederrenian :  
Distiatuz ilhunbetan  
Argi gaindiz gauerditan  
Hedatzen zuen eguna  
Guziek maite dutena.

21

Palazio guzietan,  
Lehen plazen ezkinetan  
Ehunka ziren agurrak,  
Mihi zuztenak sukharrak ;  
Argi bat etzen ageri,  
Non etzen betan koplari  
Ez duke eho kalakak  
Asmatua Espainolak.

### **Zezenetako tokia**

22

Iruñan zezen lasterka  
Jende biltzeko metaka,  
Lehen josteta da bethi,  
Unhatzen du nihor guti,  
Seinalatuz geroz besta,  
Lami gehiago ezta,  
Denak kantaz eta oihuz  
Zezenetarar hurbilduz.

23

Baldin zezenen haita da  
Berant hasten ere bada,  
Goizik jendia hurbil dago,  
Beldurrez gal berantago.

<sup>20</sup> Bafatu, kolpeka argitu.

<sup>21</sup> Esentziak, bameak.

<sup>22</sup> Jira-biraka.

Gose khentzekuaz oroituz  
 Plaza estaltzen da munduz,  
 Ez plaza beharra sarri,  
 Bainan hurbilena hari.

24

Mintzatu gabe zezenez  
 Dugun har idia gizonez;  
 Erragun non, nola diren  
 Hanbat jende kokaturen.  
 Bada pesiaz arima,  
 Neska, muthil, aita, ama;  
 Hainitz dire galtzadunak,  
 Ez gutiago soindunak.

25

Hoitan nihor, nahi dena,  
 Utz Besta bigarrena,  
 Bihurtu etxerat gauian,  
 Izanik ere beharrian;  
 Zaurthu<sup>23</sup> gabe bihotz minez,  
 Nonbait zurrungan egonez,  
 Goizian goizik bazterretan  
 Kausitzen dire airetan.

26

Etxe bat, zabal inguruz,  
 Arrundan josia buruz,  
 Bada Takoneraz goiti,  
 Athe, leihuakitsu bethi.  
 Diot hesten dituela,  
 Gaitzetsi ez daiokela<sup>24</sup>,  
 Non ez den ankas<sup>25</sup> bestekin  
 Jostetan zezenekin.

27

Kanpo alderditik hori;  
 Dorre eztaibat iduri,  
 Bere zimenduz bakharrik,  
 Ez da gero halturarik,  
 Uztai etxe horren barnia,  
 Ez dian estalki gabia,  
 Mintzo naiz erdiaz, zeren  
 Bera leihorra den jenden.

28

Erdia hutsa utzirik  
 Leihor da bazterretik,  
 Bi metra naski halturez  
 Athekak badire zurez,  
 Ihes lekhu segurenak  
 Zezenen kontra eginak;  
 Hek ez balire kausitzen  
 Nola ager han beiratzen?

29

Harat gizonen ondotik  
 Sartzen direnian hargatik  
 Zezen errabiatuak,  
 Badire bertze lekhuak,  
 Lehen athekaren aldian,  
 Hiru urratsñoren bidian,  
 Ezin higanak saltoka,  
 Gutiago potikoka<sup>26</sup>.

30

Azken atheka gainetik  
 Jar tokiak haitz onetik,  
 Hasten dire gibelatuz,  
 Dorriari berari lothuz.  
 Han dituzu inguruan  
 Hamabortz alkhi tornuan,

<sup>23</sup> Zauritu.

<sup>24</sup> Dakiola.

<sup>25</sup> Enkas, agian.

<sup>26</sup> Lau zangotan.

Han dago populu xehia,  
Sorkhan<sup>27</sup>, oihuz ezin asia.

31

Ez du beldur iguzkia,  
Ilez ere da jauntzia;  
Gogorra delarik mandua,  
Ez da hura bezin sendua;  
Gizonek kaskua ageri,  
Arabak buruz iduri,  
Emaztiak aldian sanoki,  
Kontu gabe beruak uki.

32

Zahatua han bethi mentan<sup>28</sup>  
Kurri dabil ezpainetan;  
Urrixak eta ohotsak<sup>29</sup>  
Arin dauzka nafar hatsak.  
Denak tripa komunekin,  
Ez hargatik hutsenekin;  
Zintzurak eta mihiak  
Iduri harri-biziak.

33

Haro pixgarri herrunkan,  
Kantarua bethi hurrupan;  
Bipela ere ausarki,  
Xurienetik ez naski.  
Hango jendiak, alegera,  
Baden nihor hartaz gora  
Ez du kasurik egiten,  
Ez behin ere sobresten.

34

Han ez da khario solas,  
Bokhata ere ez eskas,  
Nahiz titxuak titxuarekin  
Duazin bethi gatzarekin;  
Karanbak eta karajuak,  
Demonio berstelatuak,  
Nahasten dire airetan  
Ehun biben hedoietan.

35

Gorago zazpi lerrotan  
Jarriz hobeki alkhitan  
Arteko jende sotsduna  
Uriz<sup>30</sup> kanpo duzu, Jauna!  
Balkoinak baititu gainian,  
Ez da nihor busti menian,  
Gauza prezagarri dena  
Denbora denian ilhauna<sup>31</sup>.

36

Kontu dio ohoriari,  
Errankizun ohoinari;  
Hartakotz doble pagatzen,  
Khetan dirua egortzen;  
Han hintzen Eyheraburu,  
Hirigoyen hire buru;  
Bientzat Bitoriano,  
Gizon maite bezaïn sano.

<sup>27</sup> Estu-estu.

<sup>28</sup> Batera eta bestera.

<sup>29</sup> Eme eta harrak.

<sup>30</sup> Euriz.

<sup>31</sup> Ezdeus, ahul, triste, grisa.



37

Han dire Eliza, herri,  
 Apez, baile, botikari,  
 Eskribau herrixketakuak,  
 Ez ahantz sastre hirikuak,  
 Modistak bere pikuekin,  
 Erdi-andriak alabekin,  
 Maixtrua haur bat eskutik,  
 Mandozaina suz hatsetik.

38

Balkoinetik da hedatzen  
 Urriak duena pisatzen,  
 Paparo zuri, ederra,  
 Traba Diamanta bera ;  
 Ez aipha infantzun majuak,  
 Duke, grandeza, hidalguak ;  
 Lerruan : Oraa<sup>32</sup> zaharra,  
 Baldes<sup>33</sup> oraino hazkarra ;

39

Martinez, gorphutzez arin  
 Izpirituz. zorrotz bezin ;  
 Plumaia burutik Concha<sup>34</sup>,  
 Gazte bezin kasik beltza ;  
 Paria gobernadoria  
 Arropa guzia urria ;  
 Pagoaga eta Lopez  
 Sahetsetik gakhuak urrez.

40

Hanbat izar lerruan josi  
 Etziren khoruan itsusi :  
 Gisa hartako uztairik  
 Othe da nihon bertzerik ;

Birabira gain guzia,  
 Hedatuz bere grazia,  
 Ageri zen begietan  
 Diruaren gastuetan.

41

Xoragarri zen ikustia  
 Hango beztitzeko moldia :  
 Urdin, gorri, hori, xuri,  
 Zer etzen gainian ageri !  
 Ohorezki ageritan,  
 Aitzindari bulharretan,  
 Gurutzia lerruan metaka  
 Eta nihoiz bat banazka.

42

Hetaz kontu behar bada,  
 Frantses baloria guti da ;  
 Frantses soldadu lehenak  
 Ez ditu hekin laurdenak,  
 Nahiz duen hurbilago  
 Gaitz ikusi gehiago :  
 Baditezke populutan  
 Jan beharrak ohoretan.

43

Utziz bixta hedatzerat  
 Erreginen balkoinerat,  
 Sobra othe da erratia  
 Zein eder den hango jendia :  
 Eginak guziak bertzek  
 Eta ez gure laguntzek,  
 Jainkuak amaren sabelian  
 Eman bezalako moldian.

<sup>32</sup> Martzelino Oraa Lekunberri (Berriain, 1788 - 1851), nafar militarra. Lehen karlistada Zumalakarregiren kontrako ekintza gidatu zuen. Brigada-jenerala (1834), mariskala (1836), Filipinas uharteetako gobernadore eta kapitain-jenerala (1840). Nafarroara itzuliakoan senadore hautatu zuten (1844).

<sup>33</sup> Jerónimo Valdés (1784-1855), jeneral espainola, Torata eta Villaringo kontea.

<sup>34</sup> José Gutierrez de la Concha (1809-1895), militar espainola, lehen karlistadan parte hartu zuen, eta gero Esparteroren erorketan. Kubako kapitan jenerala (1850) eta Ministrarien Kontseilu-buru (1868).

44

Garenen irakusterat  
 Agertzen gare mundurat;  
 Atzeman bada atzeman;  
 Ez da nihor sartzen aman;  
 Hastetik zare egina  
 Gero beharko duzuna;  
 Itsusiaren pulitzia  
 Alfer da igurikitzia.

45

Bederen espainol gorthia  
 Ez da itsusizko etxia :  
 Hara non den Erregina,  
 Goizik emazte egina,  
 Adinarentzat pisuzko,  
 Arraizia khariozko;  
 Egia da nik ikustian  
 Urhatua zela bidian.

46

Haren larrua satinez,  
 Iliak berriz kasik urrez,  
 Nihoiz nihon itsusiak,  
 Kolore xuri-gorriak;  
 Eder bezin ona, omen,  
 Nork du aski laudaturen?  
 Jainkuak emana Jainkuari  
 Ungi duako handian.

47

Hari hurbil zen Infanta<sup>35</sup>,  
 Eretu<sup>36</sup> beltxetan pulita;  
 Erresuman maitatua,  
 Den bezinbat bantatua<sup>37</sup>  
 Aingeruak bezin ezti,  
 Erregen arraza beztia,  
 Bardin mantalin xuritan,  
 Graziak ziren begitan.

48

Bi aldetarik zituzten  
 Fransesen printziak ikusten,  
 Adituz : zer muthil paria,  
 Damurik ez dela guria!  
 Hurbil ziren gero aldian  
 Cristina segida berian,  
 Muñoz<sup>38</sup>, zeren zen ederra,  
 Haren Fernando beharra;

49

Narvaez<sup>39</sup>, kopeta gaitza,  
 Iduri bezin borthitza,  
 Zarco, San Carlos handiak,  
 Jendez ere onhetsiak;  
 Asis, erregen odola,  
 Beztia soldado bezala,  
 Eta hi gure Harispe<sup>40</sup>,  
 Hango nihoren ahalke.

<sup>35</sup> Infanta Luisa Fernanda (1832-1897), Fernando VII. aren alaba. Antoine de Mompensier kontearekin ezkondu zena.

<sup>36</sup> Alde.

<sup>37</sup> Laudatua, alabatua.

<sup>38</sup> Fernando Muñoz (1809-1873), Corps-eko guardia, erregina Maria Kristinaren eskoltakoa, Fernando VIIaz alargundu zenean, harekin ezkondu zena.

<sup>39</sup> Ramón Narvaez (1800-1868), Isabel erreginarekin tronu-defenditzailea eta Kontseilu-burua 1844az geroztik.

<sup>40</sup> Jean-Isidore Harispe (1768-1855), militar behenafarra, Frantziako pare izendatua izan zen 1835ean eta Napoleon IIIak mariskala 1852an.

50

Begi golpe bat oraino  
 Zezenak has arteraino :  
 Oi, zer jendezko baratzia !  
 Hori buruzko ohatzia !  
 Zer sederia ederra  
 Burutik lephua behera,  
 Broderia askorekin  
 Eginak orratzarekin !

51

Azken lerrotarik goiti  
 Ageri da behar guti.  
 Jendiek baleta Chinak  
 Han dituzte eros dunak ;  
 Persak han ditu begiak  
 Seda artetik utziak ;  
 Gathiak dire urre lodiz,  
 Ezpisatuak bekhaitzez.

52

Amerikako hazia  
 Han da hedatzen guzia ;  
 Zilharginak badu hetan  
 Non irabaz kontuetan.  
 Zirikuz gordiak eskuak,  
 Iliak legun aphainduak,  
 Eva berri, espainolak  
 Pobrentzat dire idolak.

53

Andre gazte, bai zaharrak,  
 Aire ausarki beharrak,  
 Seinale dire alkhitan  
 Bere lorez haizeketan ;  
 Konda lephokuen koloriak,  
 Soin beltz, hori, more, ferdiak ;  
 Hetaz dire ezagutzen  
 Airosak non diren jartzen.

54

Gainbehera, oi ausartak ;  
 Berinazko larga-bixtak  
 Hari dire seinalaten  
 Zein den hobeki beztitzen ;  
 Han dire bethi ageri,  
 Zein bere urian igeri,  
 Urgulu baltuz jauntzia,  
 Bere aldian jelosia.

55

Azken hori bethi dena  
 Biziotan higuinena,  
 Atzaparrik gaixtuenekin  
 Eta bihotz erriarekin,  
 Zeinek gehiagø agur  
 Hari dire gauza eder ;  
 Bat haizekin zabaldua,  
 Bertzia despitzaz hestua.

56

Ez da ederkien dena,  
 Markisaz laudatuena,  
 Inbidia fugiarekin  
 Antolatuz begiekin ;  
 Gutti daki hark barkhatzen  
 Norbaitek badu ixitzen :  
 Ah, indiekin bizkarrian  
 Zer erremesia barnian !

57

Frantsesei girgileriak,  
 Hango urre, sederiak ;  
 Xapelak Iruñarrentzat  
 Doian on besta maskatzat,  
 Lastuak iduri urrekin,  
 Traputzar batzuk sedekin.  
 Bego, bego begientzat  
 Nausi dena herrientzat.

58

Ez bedi Franses andrerik  
Banta hobeki beztirik ;  
Gathu zehatuak ziren  
Bertzez neurtzen baziren.  
Aire pisua damurik  
Iruñarrak duelarik ;  
Badu segur kortesia  
Nor nahik bezin handia.

59

Jende deusik dakiena,  
Mintzaritan ederrena,  
Arraia da aldekuekin,  
Bat egiten agurlekin,  
Horra soldaduak berak,  
Gardia ziren bakharrak,  
Othoitzez zauden jendiari,  
Sobratuz zuanian athiari.

60

Ez bertze asko bezala,  
Sakrenonden<sup>41</sup> daritela,  
Dixidatuz<sup>42</sup> kulazekin,  
Salbaiatuz konsinekin<sup>43</sup>.  
Prudentzia segitzeko,  
Ez da bethi fidatzeko  
Kanpo itxura ederrei :  
Fidatu behar da tzarrei ?

61

Espainolak arrotzen du,  
Konfiantza galdetzen du ;  
Frantziako ezkinetan  
Eskas zen Nafartarretan ;  
Iruñeko itzuliak  
Eman ez baitu begiak,  
Egonen dire aphur bat  
Maita gabe elkhar hanbat.

62

Nafartarra da ondua,  
Behar da ezagutua ;  
Bertziak bezala da gaixtua ;  
Ez egin hobiagoz saltua ;  
Haren lurra ez du nahi,  
Adiskidentzaren bahi,  
Arras haurrai arin ditin ;  
Etzaie hori ematen.

### Zezenak

63

Ez badu ikusi berak,  
Ez du erranen paperak  
Zer den gudu izigarri  
Mintzatzerat nohan hori.  
Zezena mendi batekin,  
Bere ahal ez deusekin,  
Hau da gizona burutan,  
Bieri odola zurrutan.

<sup>41</sup> Sacré nom de Dieu, juramentua, birtoa.

<sup>42</sup> Mehatxatuz.

<sup>43</sup> Consigne- consigna (frants. -gazi.), agindu.

64

Kostuma zaharren errua!  
 Noiz zaik xarturen ondua?  
 Ordu huke suntsitzeko,  
 Eztiago agertzeko!  
 Ikusatzu atheratzen,  
 Elkharrekin aitzinatzen,  
 Hamarbat gizon tieso,  
 Lerruan jarriz besoz-beso.

65

Hartzen dutena erdian,  
 Mentadun herri guzian,  
 Duzu erregen aiskidia,  
 Montes, josteten hastalia.  
 Montes bere lagunekin,  
 Bertzez kasu gutirekin,  
 Badua zerbeit eskatzerat  
 Erregien balkoin perat.

66

Errespetu handienian  
 Han dago belhaun bat lurrian,  
 Humilki buruz behera,  
 Eta denak hari beira.  
 Gakhua, libragai zezena,  
 Aski iguriki dena,  
 Arthikitzen zaio airez,  
 Moldatua erribanez.

67

Nemurseren andriak bada,  
 Isabelen nahia da;  
 Izan du ohore hori,  
 Beiratua lehenari;  
 Errege espainolentzat  
 Agertzen bethi nausitzat;  
 Zezenetan berian ere

Hortako frogak badire.

68

Aphez eta mirikua,  
 Pare bardin ohitua,  
 Athian dituzte ezartzen,  
 Eian nihor den behartzen.  
 Paperez eginik gizon bat  
 Ethortzian plaza erdirat,  
 Hirriak dire saltatzen,  
 Ez baitu nihor izitzen

69

Lehen barrera athetik,  
 Bigarrenaren azpitik,  
 Ilkhiz xahalen aita,  
 Sartzen da plazan saltota;  
 Patroina bakharri kaustuz,  
 Hasten zaio sudur ziztuz;  
 Mundua oihuz goratik,  
 Mila biba ingurutik.

70

Laster ikusteko zer den,  
 Hartuz boliada lehen,  
 Hor tripatik adarretan  
 Ematen du girginetan;  
 Patroinak tripa bultua  
 Ihiziz zuen hantua;  
 Hirriz eman zen mundua,  
 Xoriz bethetzian zerua.

71

Han uso bat plazerekin  
 Ikusi zen hegalekin,  
 Ez jakinez jautsi norat,  
 Gaten erregina ganat <sup>44</sup>.  
 Lehen Erroman segurki,  
 Iruñian bezin goraki,

<sup>44</sup>Hona nola kontatzen duen kronikagile erdalduak : "...banderillas de las que salen pájaros y palomas, tres de éstas se posan delante de la reina quien las coge, acariciándolas el duque y duquesa de Nemours, mientras su Magestad ordena conservar los pichones con cuidado para transportarlos a Madrid".

Banaturen zuten hola  
Zerua mintzatzen zela :  
72

Isabela, zure khorua!  
Jabal<sup>45</sup> bedi Carlos<sup>46</sup> berua;  
Sorthu zare erregina;  
Ixil zeruko dohaina.  
Erreginak Nemursari,  
Eman zion uso hori :  
Hartaz artha izan badu,  
Zuina higatzen du!  
73

Aski da jostetarena;  
Bilha begiez zezena.  
Burua kasik zeruan,  
Arrapua suilaz musuan,  
Behatzez joka lurrari,  
Marrumaz beira jendiari,  
Plazan dabila lasterka,  
Desafiatuz adarka.  
74

Nor da bada agerturen  
Orai kontra zezenaren?  
Ausartzia handirekin  
Montes bere lagunekin.  
Zein den gero jakiteko  
Hemen dut seinalatuko;  
Ez da ederrenetarik,  
Ez eta itsusitarik.  
75

Hasia ilia urdintzen,  
Bainan ez zangua pisatzen;  
Beztu galtza labur ferdez,  
Sedazko gairik senduenez;  
Aztalak xuri zirrikuz,  
Oinetan zapatak larruz;

Hark duen maipolisa  
Izan behar da belusa.  
76

Errexago da ikustia,  
Ezen ez haren pintatzia,  
Dirdiratuz iguzkian  
Ehun izarrez begian,  
Zilharra xoilki ageri,  
Zertako beira zolari?  
Maipolis barnekotik  
Paileta gandi sedatik.  
77

Urthez dohanjan bezan bat,  
Badu berroitahamar bat;  
Kortesia denak baitu;  
Tretu bizi, beltxak ditu;  
Ez da bizkarrian kargarik,  
Ez lasterkaren trabarik;  
Burraino espanta,  
Ezagun du zaila dela.  
78

Hark bizkar xuriz zuena,  
Lagunak horiz emana,  
Zen galtza motx arrosekin  
Ez gutiago senduekin  
Besuan zituzten garbiki,  
Doblian behiti puliki,  
Kapa batzuek arinak,  
Hori, urdinez eginak.  
79

Sare beltz sedaz buruak  
Ezin hobeki lothuak,  
Erribanez<sup>47</sup> katagona  
Lepuan behera zohana.  
Hek bezala beztitzeko  
Behar da zenbeit untzako.

<sup>45</sup> Baretu.

<sup>46</sup> Carlos V, karlisten erregea (1788-1855), ez dirudi Hicibartenen begiko zenik.

<sup>47</sup> Zintez.

Holakuak toreadoriak,  
Zaldiz dire Pikadoriak.

80

Azken hoiek zezenetan  
Nola nobliak denboretan,  
Xapel zuri zabalekin,  
Beztidura horiekin,  
Galtza hazkarrenak larruz,  
Barrutik bardin xabalduz ;  
Haga luze bat eskuan,  
Zorrotz haltzairuz buruan.

81

Zaldia begiak gordia,  
Inguru mokanes<sup>48</sup> ferdia.  
Hekien ondotik txuluak,  
Ez baitire behar tontuak,  
Bezti, iduri dutela  
*Figaro*<sup>49</sup> piztu zaiela  
Bere jauntzi guziekin  
Tirriatzeko heiekin.

82

Jo du trunpeta airosak ;  
Huna gudu serioesak ;  
Ixil jartzen da mundua,  
Nola balitz izitua :  
Plazan zaldiz pikadoriak,  
Eskutan haga traidoriak,  
Hurbil ilkhi tokiari  
Beira daude zezenari.

83

Xahalaren aita gaitza,  
Farrastan lurrian behatza,  
Erro zabilan inguru,  
Ez jakinez nori buru,  
Izitua, nahasia,

Ahua arrapoz gaindia,  
Jendiaren harramentzekin  
Errabia guziekin.

84

Izan gabe flakatua  
Asma guzia galdua  
Bazterreko ihurtzuriz,  
Egorriak aho goriz ;  
Zanguak, burua, buztana  
Alferretan zabilkana.  
Ikus duen bezin laster  
Bultu bat inguru ezker.

85

Hor duako hiru saltotan  
Jastatzeko adarretan ;  
Frixtan<sup>50</sup> hurbildurik kolpez,  
Miran hartzen du berustez  
Pikadoriaren zaldia,  
Barrera kontra ilkhia ;  
Zaldi bakhotxa zaurituz,  
Lasterka dua aitzinatuz.

86

Zaldikuak luzatuz lantza,  
Sistatzian espalda gaitza,  
Baldin ungi hartzen badu  
Hainitz aldiz izitzen du ;  
Bera bada izitua,  
Mundua ere lastua  
Ikusiz, odolian denak,  
Zaldi bulhar hazkarrenak.

87

Oi, nola iliak buruan  
Xutik diren inguruan,  
Beldurrez odola hila,  
Hatsik, ez hitzik ez dela !

<sup>48</sup> Musu-zapi.

<sup>49</sup> Figaro, Beaumarchais-ek asmatu pertsonaia, *Le Barbier de Sevilla* obran (1775), Mozartek eta Rossinik erabili zutena beren operetan : *Le Nozze di Figaro* (1786), eta *Il Barbero de Sevilla* (1826).

<sup>50</sup> Maiz.

Biziaren estalkia,  
 Gainekuari adrezia  
 Orduan eskasten bada,  
 Lazdura sobranitan da.

88

Lurrerat dua erroz gora,  
 Zaldia arin gainera.  
 Ouf! Bera ez da ukia;  
 Bainan nola den zaldia!  
 Bulhar guzia ageri,  
 Sahetsetik odol gorri;  
 Tripa dario herrestan  
 Zezenaren ohoretan.

89

Zaldizkua, segur iduri  
 Zeren dituen ezarri  
 Burdin xabalak non nahi  
 Kolpe gaixtuen urrun bahi,  
 Fundi<sup>51</sup> lezake zezenak  
 Urrun balitu lagunak;  
 Bainan hurbil dire txuluak,  
 Arin dituztenak zanguak.

90

Ezpadak hekin buruan,  
 Airetan harmak eskuan,  
 Zezenari dire gaten,  
 Jauziz orotarik hasten;  
 Sobra hurbil gabetarik,  
 Bere kapak arthikirik,  
 Zezena dute zoratzen,  
 Haren bitima salbatzen.

91

Hanbat kolorez deithua,  
 Zezen errabiatua,  
 Heki duakote lauhazka,  
 Utziz zaldia ihauska<sup>52</sup>.  
 Zer ophila bihotzetik  
 Dena urruntzen geroztik!  
 Heriuari hurbilena  
 Da geroztik segurena.

92

Arin behar da orduan,  
 Kontu egin inguruan;  
 Norat behar den ihestu  
 Aitzinetik begiztatu,  
 Toleadoren ondotik,  
 Ahurina<sup>53</sup> muthurretik,  
 Dualakotz airez zezena,  
 Guzua odol egina.

93

Atheka behar da geroz  
 Bien artian eman saltoz,  
 Beiratu gabe gibelat  
 Etsaiaren jostatzerat.  
 Arthikitzen zaio kapa,  
 Nahiz ethortzian lasterka,  
 Jabalarazi gezurrez,  
 Tentatzaliaren itxurez.

94

Maiz ikusten da hargatik  
 Aitzinatzen kapagatik,  
 Atheka jauziz pasatzen,  
 Ikharaz denak bethetzen.  
 Asko aldiz pikadoria,  
 Erroz gora zaldiz gordia,  
 Zezena hurbil duenian,  
 Ez da mintzo haren menian.

<sup>51</sup> Hondatu, desegin.

<sup>52</sup> Zilipurdika.

<sup>53</sup> Adurra, lerdea.



95

Miletan dohatsu baldin  
 Ez badu jo adarrekin !  
 Haren musuko ferekak  
 Ez dire amen besarkak ;  
 Itziliphurdi egitian  
 Loth baditeke barrerian,  
 Lagunek hartuz barnerat  
 Hel diteke segurerat.

96

Zenbat aldiz dago ordian,  
 Ubel, umatua, lurrian,  
 Barreraren kontra zapan,  
 Odola gaiaz zurrutan,  
 Zezenak su handienian  
 Uki-beldur buru fuinian ;  
 Ez badiote urruntzen,  
 Laster heriua agertzen.

97

Xarpak<sup>54</sup> xoilki hiruetan,  
 Zaldia on iztapetan,  
 Eman zuen munduari  
 Atsegina pasagarri ;  
 Hari hil arte azpikua  
 Kobarde zezena sendua ;  
 Bainan hura galtziarekin,  
 Bera jarri kobardekin.

98

Batek zezena adreki  
 Biraka zuen puliki,  
 Buztan puntatik lothurik,  
 Han ibili zoraturik,  
 Zezena bira bezanbat  
 Hura lastertuz aitzinat,  
 Hiru erri etzelarik  
 Iphurdirat adarretik.

99

Zezena saltoz ethortzian,  
 Frixtan bazakien airian  
 Kaparekin enganatzen,  
 Haren dexiduz trufatzen  
 Hil denian zenbait zamari,  
 Aski zaldizko erori,  
 Besta jaunzten da berritan,  
 Guziek maite gustutan.

100

Utzi plaza pikadoriek  
 Hartu behar dute txuluek ;  
 Urruntzen dire zaldiak,  
 Zangoz egiten jauziak.  
 Hirietako trunpetak  
 Eta xirola bastartak.  
 Oihuz daude aski dela  
 Zaldiz ixuri odola.

101

Metra eskas den makhila  
 Txuluek dute banderila,  
 Haltzairuzko puntarekin,  
 Sarthu behar lasterrekin  
 Zezenari lepho gainean,  
 Egon behar adar menian,  
 Gaez hari bekhos-bekho,  
 Beldur gabe harendako.

102

Eian behar dute oinik,  
 Buru, begi, bihotz iminik !  
 Doblezka dire makhilak  
 Fida direnien muthilak ;  
 Makhila hek ingurutan  
 Paper kroxkatuz jauntzitan,  
 Ikusgarri hala hala,  
 Zezenen lephuan bezala.

<sup>54</sup> Xarpa pikadoria, zeini frantses printzeek diamantez hornituriko eraztuna oparitu zioten.

103

Bethia dire petartekin,  
Zeineri khardo mitxekin<sup>55</sup>  
Baitzaie sua ematen,  
Etxa<sup>56</sup> diren baino lehen;  
Folsua ungi dagola  
Sartzen denian banderila,  
Ethorritz aitzin aldetik,  
Ginatuz adar artetik;

104

Bertzenaz da ikustekua  
Banderila ondikozkua,  
Arthikia adarrekin,  
Gor ahaleko bestekin.  
Pikoz eta suz mindua,  
Zuziez irakitua,  
Zezena saltoka orruaz  
Jartzen da gora buruaz;

105

Espaldetako zauriak,  
Doble berak idekiak,  
Ero dabil jo lasterrez,  
Mendeku nonbait beharrez,  
Ozartu nahi delarik,  
Indar guziak bildurik,  
Errabiak hazkartua  
Nahiz hainitz izitua.

106

Bainan harentzat azkena  
Jo du trunpeta orena.  
Eskuz muleta hedatuz,  
Beira nor duan aitzinatuz,  
Nola errege zetruari,  
Lothuz arrai ezpatari,  
Txulozko lerro batekin  
Bihotzeko bakiarekin.

107

Deitzen da hori ezpada,  
Holakoez paria bada;  
Ez duen gisa parerik,  
Hortan Montes ageririk.  
Aphuru lazgarri dena,  
Ezpada eta Zezena,  
Bekhoz bekho dire jartzen,  
Elkharren indar miratzen.

108

Zezen aitzinian gizona  
Behar izan artexena,  
Hura ondartzan zaionian  
Jartzeko adar gerizian;  
Zezena han da ezarria,  
Nahiz ase errabia,  
Ezin gorde dezakena,  
Odol galdetzen duena.

109

Ezpadaren banderari  
Zezena da beira jarri;  
Higuin ahal da gorria;  
Hark eman dion furia!  
Hantu da hainitz lephotik.  
Hura ikusiz geroztik;  
Zartatzerat duazko zainak  
Bere indarren pikainak.

110

Nola orduan gizona  
Diteke galtzetan barna!  
Ez du ageri kanpora,  
Bainan du asko pirpira.  
Ikuspen horri josiak  
Daude guzien begiak;  
Ez da deus bertze ikusten,  
Nahiz asko den amesten.

<sup>55</sup> Metxa, sugailua.

<sup>56</sup> Bota.

## 111

Noizere bada zezena,  
 Gehiago ez daukena,  
 Baitua saltoz gizonari,  
 Ez ustez segur bertzeri,  
 Horra, ustez jo etsaia,  
 Non duen atzeman zaia,  
 Beso ezker petik airian  
 Hiltzaliak bide egitian.

## 112

Eskuinaz dio adreki,  
 Buru galdu gabe, finiski,  
 Ezpata hezur artetik  
 Zuzen sartzen garrotetik,  
 Bi alde espaldan uzten,  
 Lehen kolpe lurrian ematen,  
 Gorphutz guzia dardaran,  
 Azken biziko pirpiran.

## 113

Harma atheraz frixtakuan  
 Zezenari hiltzerakuan,  
 Altxatzen du balentriaz,  
 Agurrarazten bilkhuiaz.  
 Bere du lehen zezena,  
 Urre balio duena,  
 Gortheke heian hazia,  
 Gosta delakotz bizia.

## 114

Badu oraino harekin,  
 Aberatsen agurrekin,  
 Asko gauza, zilhar, urre,  
 Sederia eta lore ;  
 Guzien mihi puntetan  
 Haren izena lerrotan,  
 Sekulakotz da ikhasten  
 Ohoriak zaizko ematen.

## 115

Bainan zezena ukia ;  
 Aldian utziz hil tokia,  
 Gaten bada sarraskitan  
 Odola gaiaz zurrutan,  
 Haragiz lephua ezagun  
 Kolpatzalia ganik urrun,  
 Molde gabiaren paguak  
 Dire trufazko xiztuak.

## 116

Zezena bada nausitzen  
 Eta gizona izitzen,  
 Bapo da xahalen aita ;  
 Bapo gizona hileta !  
 Ezpada hilik bestetan  
 Deus ez da eskas jostetan ;  
 Bibak dire bazterretik,  
 Egorriak bihotzetik.

## 117

Ezpada gudutik denian  
 ilkhitzen trionfa menian,  
 lkusten da hainitzetan  
 Kortesiazkø pausutan,  
 Andre handien zenbaiti  
 Xingola butatzen goiti :  
 Heiek dute seinalatzen  
 Hila nondik den ilkhitzen.

## 118

Nork erran galanteriak  
 Hor zituela "graziak" ?  
 Moruek dute Espainian  
 Hori utzi zahar mendian.  
 Hiru egunen segidan  
 Plazak odola du edan.  
 Ehun zamari bederen  
 Ezpatan pasatu ziren.

119

Hekin hertzezko berdurak  
 Galdetzen zituzken urak;  
 Bainan ohituak naski  
 Nihork etzuen arthiki;  
 Zezen bat hiltzen zutenian  
 Hiru mandok ederrenian,  
 Lepho kraskailaz bethekin  
 Zaramaten lasterrekin.

120

Gizonak unhatu onduan,  
 Eguna jabaltzerakuan,  
 Zakhurak ziren largatu,  
 Zezenekin engaiatu;  
 Etzuten eman amorrik  
 Nahiz etzuten adarrik;  
 Hainitz gathasken buruan  
 Nausitu ziren gudian.

121

Zezenak zituen behin  
 Butatzen airetan arin,  
 Hartuz adarren puntetan  
 Hurbil aldi guztietan;  
 Bainan zirenian oroitu,  
 Batzuk beharritik lothu,  
 Bertziak ixter zainetarik,  
 Zezenagan eskutarik.

122

Hiltzeko azken zezena,  
 Bildu zen errotazaina;  
 Hamabi ziren hetarik,  
 Denak xuriz beztiturik,  
 Iliak irineztatuak,  
 Batzuk bertzeri lothuak,  
 Batian zuazin elkharrekin  
 Haga luze batzuekin.

123

Jainkuak beira makhurtzetik,  
 Lagunen ierrua uztetik!  
 Bakhar denak berehala  
 Eginen du karanbola:  
 Ikusi ziren nigarrak  
 Zezena sarthuz adarrak  
 Bi muthilei ziotenian  
 Hatsa khendu hoberenian.

124

Hainitz gathasken ondotik,  
 Hamabi lantzen sasitik,  
 Lotzen dute paretari  
 Onduan lotzeko lurrari:  
 Utz ordu dire zezenak,  
 Espainolentzat eginak:  
 Ni banintz erregetarik,  
 Ez liteke zezenarik.

125

Horrek ez du espainola  
 Iztiren berehala;  
 Ez dut hekien gusturik,  
 Halere naski nererik.  
 Dena den, adio bethikotz  
 Etzarete neretakotz,  
 Josteta hirriskutsuak,  
 Barbarian asmatuak!

**Zaldi Lasterkak**

126

Plazan sarthu dire betan  
 Hogoi muthil zamaritan;  
 Bizarrak doian zioten  
 Kokotsian itzal egiten;  
 Gorputzez ziren lerdanak,  
 Larruz itzalian egonak;  
 Har zitezken jauntientzat  
 Iguzkiko erregetzat.

127

Bat zen behti lander hariz,  
 Kapatik hasirik xuriz;  
 Buruan estalki kobria,  
 Iduri baitzuen urria;  
 Kaskatik lumek airetan,  
 Haiziaren hatsez jostetan,  
 Edertzen zuten nausia,  
 Jadanik ez itsusia.

128

Belusa zen bertzia jauntzi;  
 Halako sedekin untzi  
 Baliteke bilhatzeko;  
 Deus hain pulitik gaineko,  
 Kapa labur bat ezkerrian,  
 Akhabo dena belhaunian.  
 Gaphelu xabal batekin  
 Bi lumaia xurirekin.

129

Hirugarrena ez gaizki  
 Behti zen estranioki,  
 Galtza largo batzuekin,  
 Morotako pikurekin,  
 Sabre eder bat dilindan,  
 Oihal gaphelu kopetan;  
 Sedaz bordura guziak,  
 Kapusailian urrieriak.

130

Nihor etzen behti hetan,  
 Bat bertziaren arropetan;  
 Loria bat zen ikustia,  
 Ez aipha hala izatia  
 Urrezko estriberekin,  
 Lantza punta zilharrekin,  
 Zangotako brodekinak  
 Arropen funtsian eginak.

131

Zaldi ezin itxikiak  
 Emanak Andaluziak,  
 Bere gainekuez hartuak,  
 Lasterkarat paratuak,  
 Farrastan lurrari joka  
 Nahiz eman galupaka,  
 Ahotik zirrapua jari,  
 Irrintzirinaz mintzari.

132

Galdetzen dute lasterka  
 Abiatzia zein lehenka,  
 Ekharriak lehertzerat,  
 Ahal guzien urtzerat,  
 Bere nausiak trionfan  
 Eremateko airetan,  
 Iduri badakitela  
 Bertzenaz deus ez direla.

133

Airetan zen ereztuna  
 Behiti hariz emana.  
 Zaldizkuek bere lantzekin,  
 Zuazilarik lau hatzekin,  
 Behar zutena zilhotik  
 Atzeman lehen kolpetik;  
 Behar zen besta hortako  
 Begi on eta zaldizko.

134

Zaldizko bakhotxak bada,  
 Hartuz geroz boliada,  
 Segura zuen berekin  
 Erez tuna xingolekin ;  
 Segitzen zaion xingola,  
 Kometa buztan bezala,  
 Lantza punta zuenari  
 Sarthu ereztuen zilhuari.

135

Zaldiak zuazin airetan  
 Largatuak bridanetan,  
 Lurra seinale etzela  
 Zangoz ukitzen zutela,  
 Hekin gainean egoteko,  
 Gehientzat lan asko ;  
 Bainan hagan zituztenak  
 Etziren beldur zutenak.

136

Lasterka horren ondotik,  
 Seg a baten ingurutik,  
 Atxatzen zituzten loriak,  
 Zaurthu gabe beso luzeak ;  
 Hoitan ere gehienak  
 Izan ziren eskaldunak :  
 Erran nahi da artexak,  
 Diona hitz horren funtsak.

137

Moro bat eman zutenian,  
 Xutik alkhi baten gainian,  
 Zaldizkuak bazuazun hari,  
 Bulharrak zaurthuz pekuari,  
 Bainan etzaizkon hurbiltzen,  
 Zaldiak ziren izitzen,  
 Behin abiatu orduan  
 Gibelat egiten saltuan ;  
 Xanaxak han onduan ziren ;  
 Zanzepei lothu behar zen <sup>57</sup>.

138

Batek zaurthu zuen Morua  
 Eta irabazi khorua,  
 Ezin hurbilduz nihondik  
 Lantza arthikiz urrundik.  
 Norbera baita suntsitu  
 Lantzak duena zilhatu,  
 Bestak dire ganbiatzen,  
 Berritan emanik sortzen.

139

Zaldizkuak bi burutarik,  
 Arroltzez zarpak betherik,  
 Hor dire hasten elkharri  
 Besainka, haurrak iduri ;  
 Ez da zilegi gelditzia,  
 Zaldi galupa baratzia ;  
 Besainka zarpak huts arte,  
 Gutik amor eman dute.

140

Kobrezko eskudak zuzten  
 Beso ezkerrian ematen,  
 Bisaiatik beiratzeko  
 Kolpe hori arroltzezko ;  
 Hetan leherturik kroskuak  
 Saltatzen ziren gorringuak ;  
 Kiski-kaska zuan denbora,  
 Ekhia sartzian ohera.

<sup>57</sup> Estrofa honek ditu bakarrik zortzi bertsoletxo ordez hamar.

**Zuziak**

141

Plaza nausia arratsian  
 Ezin agertu zen hutsian,  
 Estali zuten arbolaz,  
 Hekien gainak bolboraz,  
 Paperezko adarrekin,  
 Plegatuak uztaiekin,  
 Asur arrudak iduri,  
 Edo zenbait asmu berri.

142

Bi oren handiz bederen  
 Etzinduen ikusiren  
 Plaza guzian pixturik,  
 Bertze nihongo argirik,  
 Iduri plazer zuela,  
 Besta eder zitzaiola,  
 Zeruak berak izarrak  
 Utzirik pixtu beharrak.

143

Arrudak dire birungan,  
 Ginharrak denek burrunban,  
 Zuzirien ithurriak,  
 Izarrezko zurxuriak ;  
 Argiz eginik dantelak,  
 Hedatuak bere belak,  
 Argi arte denetarik  
 Deseinuak agerturik.

144

Orga, gaztefu, arkada,  
 Iguzki, lanpa parada,  
 Zer nahi den figura zen  
 Kartuxatik atheratzen ;  
 Gaten zirenak airetan,  
 Jauzten ziren urgulutan  
 Ehun arraioz gairiak,  
 Kolore urdin-xuriak.

145

Plaza Castillo erdian  
 Gauza probetxos berian,  
 Ithurri bat ur onekin  
 Ikusten da plazerekin,  
 Hura ere paretetan,  
 Dena bezti kartuxetan,  
 Aphaindua zen gerlako,  
 Su luzeki egiteko.

146

Hiru gerlako fregatek,  
 Higituak mekanikek,  
 Jautsiz gain behera betan,  
 Gordiak zuzten arrudetan,  
 Hiru aldetarik belan  
 Eman zioten asko lan ;  
 Hara hunat bazabiltzan,  
 Nola itsasoz balentzan.

147

Guzietarik deskarga  
 Betan egiten aldizka,  
 Biratzeko artexketan  
 Balak igorritz panpetan ;  
 Bonbak ziren iguzkiak,  
 Balak izarren pesiak ;  
 Fortiak amor eman zuen  
 Zuzirik noiz ez baitzuen.

148

Pulunpatzen ziren ganian,  
 Kolpez aurkhitzen egunian ;  
 Zenbatenez ilhunago,  
 Hanbat orduan argiago,  
 Oi, zer gau ederra hura ;  
 Ez da halako ardura,  
 Ez eta ere beharrik,  
 Inguru denian beharrik.

**Zuziazko Tiruak**

149

Hamar orenak jo onduan,  
 Hedatua jendia heguan  
 Beira zagon denborari,  
 Zeru garbi, ederrari,  
 Zitadelan karrosekin,  
 Gibeletik oinezkuekin,  
 Sarthu zen gorthe guzia  
 Argiz zuela hesia.

150

Kanpotik eta barnetik  
 Alderdi guzietarik,  
 Birabira harrasiak  
 Zuzko sokekin argiak,  
 Bastun hegi guzitan,  
 Inguruko itzulitlan,  
 Hiru herrunka bederen  
 Suz piztu basuak baziren.

151

Portaliak gain beheretan,  
 Zubien bere gathetan,  
 Denak suzko argiekin  
 Arin ziren gauarekin;  
 Ezker eskuin hainitz urrun,  
 Milaka bazen lanpiun,  
 Ezarriak halturetlan,  
 Bide bazter guzietan.

152

Hetaz piztuak arbolak,  
 Hetaz gaztela kantaiak;  
 Etzen uste bizi lurrian  
 Bainan ametsezko gauian,  
 Ethorritz zitadelatik  
 Argi nola eguzkitik.  
 Agertu zen zitadelan  
 Tronu bat egina gelan;

153

Zariola sederia,  
 Franjetan dena horia,  
 Arkajuz egin colonak,  
 Urria gairdiz daritenak.  
 Gorthe dena han zen jarri  
 Beira zuzien gerlari;  
 Sua zen hasi kanpotik,  
 Soldaduz zen larrainetik.

154

Balazo enganatzaliak,  
 Ederrenian beztiz airiak,  
 Jausten ziren izarretan  
 Ibiliz nola jostetan;  
 Pezak ixil hari ziren  
 Arthikitzen iguzkiren;  
 Oren batez zeru dena  
 Izan zen sutan emana.

155

Bazen kasik errateko  
 Sobera zela lureko;  
 Halako gerla ikustia  
 Nihorentzat nigar bidia;  
 Soldaduentzat odola;  
 Bainan kontu diotela  
 Kekin ezpata gorriak  
 Seinalatzian justiziak.



**Pasaiuak**

156

Ilhun alderat hirian,  
 Pasaiatuz agerian,  
 Gaindiz da jendia ikusten,  
 Ttipi handiak nahasten.  
 Edergailu munstratzeko,  
 Hara-hunat ibiltzeko,  
 Jendiak ilkhi nahi badu,  
 Takoncrak gaitzik ez du.

157

Nahi denian norbeit jarri  
 Ez da nihon eskas harri ;  
 Badire itzal ederrak  
 Eginak platan adarrak,  
 Erdian zabal baratziak  
 Arraiki zabalduz loriak,  
 Hala nola koloretan,  
 Denak gaindiz usainetan.

158

Hiri barnian da pasaiua,  
 Ederra bezin arrarua,  
 Jendez, nola liliekin,  
 Bethi bezti gusturekin.  
 Hortik lekhora kafetan  
 Jendia sartzen arratsetan,  
 Gizonak bezala andriak,  
 Kostuma idekiz athiak.

159

Bere bolada esnekin,  
 Limonada arnandekin, <sup>58</sup>  
 Pausu handienian husten,  
 Pezeta erdi iristen ;  
 Tripak ederki betheta,  
 Higual zaiote zer gasta ;  
 Jendia bizi da beroki ;  
 Gutitan naski hobeki.

160

Onhetsia alkhetan  
 Jartzia aphezak lerrotan,  
 Kate, pasaiio, zezenak,  
 Guzientzat dire onak ;  
 Hetan bakhotxa beretzat,  
 Jelosla nihorentzat :  
 Berak egiten duena  
 Nola bertzetan kondena ?

161

Jeloskorra, har eskola  
 Ixil egon behar dela  
 Bertzek nola hik egitian  
 Bere bizitzeko moldian.  
 Bere ustez jakinsunak,  
 Badire ikusten jaunak  
 Trufatzen direnak jendez.  
 Beziak hekien tintez.

162

Hek, kantatuz libertatia,  
 Hustian kafetako athia,  
 Bidian nihor ezin jasan,  
 Guziak ezartzen basan,  
 Iruñen ez halakorik,  
 Han nihork ez ahalkerik,  
 Egitian bertzek bezala,  
 Apez edo lego dela.

<sup>58</sup> Arbendolekin, almendrakin.

**Harmada**

163

Ederra zen egun hetan,  
Iruñeko zelhaitan,  
Soldadu lerruan emana,  
Francisco Asisek<sup>59</sup> mana.  
Beruak etzuen izitu  
Nahiz nola zen agertu  
Gerla bide itzulitan  
Utziak aski berritan.

164

Jendia zagolarik erria,  
Sapha minian baitzen airia,  
Soldaduak arratsaldian  
Kausten ziren hoberenian;  
Ibili ziren lasterka,  
Aitzindariak oihuka,  
Goiti behiti lerrotan,  
Erregen gustu handitan.

165

Sarthu zirenia hirian  
Etzen bustirik bisaian;  
Hanbat lasterken ondotik,  
Doian ezagun hatsetik  
Asisen zaldizkuek zuten  
Sartzian ederren ematen;  
Bainan bazen oinezkotan  
Zain hartagorik menbrotan.

166

Halako soldaduekin,  
Aitzindari jakinekin,  
Bentzu diteke mundua,  
Nahi bezin hedatua.  
Ez dire beldur gosiaren,  
Ez eta ere bidiaren,  
Guti janik ikhasiak  
Laster higaten mendiak.

167

Suntsuna, xirribikekin,  
Nafatar soldaduekin,  
Gerian dabilke jostetan  
Nola Eliza bestetan.  
Goizeti arrats askotan  
Suan eta mendietan,  
Zigarroa bat musuan  
Bizi ditezke multzuan.

168

Sos baten agorienta  
Hekin edari plazenta;  
Soldadu on ilkhitzeko  
Bada heki beiratzeko.  
Erromanuen denboretan  
Lehoin ziren mendietan;  
Ondoriuak bizi dire  
Gutiago ez baitire.

169

Bertze hanbat jende zoro,  
Guziak direniaharo,  
Zer diren eskaldun umiak  
Errateko zen, aizkidiak:  
Lau mila urthe bederen  
Nausi dire toki beren;  
Ez da munduan bertzerik  
Hek bezala itzaturik.

170

Higatu dire mendetan  
Populuak bazterretan;  
Bere hurretik suntsitu,  
Nausiek asko kasatu,  
Eskalduna Pirenetan  
Ez da izitu gerletan  
Aitak ehortzi tokian  
Izanen bethi agian.

*Aski J. M. H.*

<sup>59</sup> Francisco de Asis Maria Fernando de Borbón (Aranjuez, 1822 - Epinay-sur-Seine, 1902).  
1846ean bere lehengusina Isabel IIarekin ezkonduzen